

Ainara Elortza Izagirre

*Azkoitia,
Gipuzkoa
(1979)*

Aurkibidea

Biografia



Azkoitiarra. Gurasoak ere azkoitiarrak ditu. Arte Ederrak ikasi zuen lehenbizi eta geroago Haur Hezkuntza. Gradu Bukaerako Lana hitanoaren inguruan egin zuen eta, hain zuzen ere, Azkoitiko hikaren inguruko proiekturako egin zitzaion elkarriketa.

Zintak

AZK-077

- **Proiektua:** Hike eizan!

- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2021-05-31
- **Iraupena:** 71 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Umetan dena euskaraz

- **Erref:** AZK-077/002
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:00:37. **Bukatu:** 00:02:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Xabier Munibe ikastolan ibili zen. Umetan den-dena euskaraz egiten zuten eta gaztelaniaz ia ez zekitela dio. Floreaga ikastetxean ba omen zegoen D eredua ez zen beste eredu bat eta bere adin inguruko batzuek ez zutela euskaraz ikasi dio. Adin horretatik beherakoek eskolan ikasi dute euskaraz. Familia erdaldunetakoek Floreaga ikastetxera joateko joera zuten.</p>

Transkripzioa

- Eskolara nora joan zinan?
- Xabier Munibe ikastolan ibili nitzen, bai.
- Eta ikastolan, zu umia ziñanian, umien artian harremana euskeraz?
- Dana euskeraz, dana, dana, gure gelan ez zaon iñor´e... bat zauen iguel ama zaukena erdaldune, baiño eske... ixe ez gakinun erderaz! Bai, dana euskeraz zan, bai. Bai, bai, bai, oso giro euskaldune zan. Danok, bai.
- Eta kanpotik etorritako jendiak... hemen euskaldundu ein izan da edo...? zu umia ziñanian, adibidez?
- Nik hor ikusi det, garai hartan, ni ibiltzen nitzenin, oindiken gu azkenengo urtetakuk izengo giñen, baiño Florian oindik bazauen... ez dakit ordun A eredue zan edo nola, baiño erderaz eitten zan... ta, ordun, bazauden famili batzuk eta nere edadeko jendie badao ez duna eskolan-ta euskeraz ikixi eta hoixek beti jarraitu debe... Batzuk zailtasunek eta dana dauzkebe. Nere edadekuk gehixenak nik uste det euskeraz eitten debela /eittebela/ azkoittiarrez, ba, zu ta ni bezela. Baiño oindik badaude batzuk, gutxi batzuk, ez debena ikasi. Bai. Baiño, bueno, nik uste det hortiken aurea, hortik beherakuk bai euskaldundu dila, jakin badakibela; ibili ya beste gauze bat da. Ohitturana... ohitturan arabera.
- Ta orduan bazauan D eredua ez zan beste eredu bat?
- Bai, bai, bai, bai. Azkenetakuk izengo giñen gu, e! Baiño nere edadin badaude batzuk o ni baiño urtebete, bi, zaharro dinak-eta badaude eskolan ez zebeak ikixi. Bai.
- Eta diferentziarik bazean ikastolatik... Hori, bueno, esan dozu, adibidez, Florian, ba, eskola bat... beste eredu bat zaola.
- Bai.
- Baiña bestela´re antzematen zan aldie?
- Bai, ze famili erdaldunek askoz gehixo juten zin, Floriakin harreman gehixo zakeben. Bazauden famili erdaldunekuk ikastolan umiek, baiño gehixo zien... famili erdaldunekuk nik uste det ordun gehixenak Floriia juten zila.

Florian bazauden famili euskaldunekuk´e, e? baiño ordun´e oso nabarmena´k zin kuadrillak: zien famili euskalduneko kuadrillak askotan juntatzen zin eta erdaldunekuk zinak beaixen artin juntatzen zin. Bai.

2. Euskararen egoera aldatu egin da

- **Erref:** AZK-077/003
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:02:59. **Bukatu:** 00:05:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

Herriko giroa oso euskalduna zen bera umea zenean. Kanpotik etorritakoek elkarrekin batzeko joera zuten. Hala ere, badira guztiz euskaldundu direnak ere. Egoera aldatu egin da ordutik, jatorri euskalduna ez duten familiak ugaritu egin dira eta. Xabier Munibe ikastolan, esaterako, garai batean oso gutxi ziren gaztelaniaz egiten zuten umeak eta gaur egun askoz gehiago dira.

3. Hitanoa Azkoitian: ohikoa izatetik "mutilena" izatera

- **Erref:** AZK-077/004
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:05:05. **Bukatu:** 00:08:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Inguruan beti entzun izan du hitanoa, gurasoek euren anai-arrebekin hala hitz egiten dutelako. Ez daki berak noiz hartuko zuen hikaren kontzientzia. Mutilek hikarako ohitura hori errazago hartzen dutela uste du, oso umetatik hasten dira hika. Azkoitian mutilek hika egiten dute, baita atzerritik etorritako familietakoek ere. Nesken artean etena hasi zen bere adinekoetan eta gaur egun gero eta gehiago mutilen kontutzat hartzen dute neskek hitanoa.</p>

4. Etxean jaso du hitanoa

- **Erref:** AZK-077/006
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:08:38. **Bukatu:** 00:12:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Amak hika egiten dio; nerabezaroan hasi zitzaien ahizpari eta biei hika. Aitak ez dio egiten. Lagun batzuekin hika egiten du. Bere garaian noka ondo zekiten mutilek, nahiz eta beti egon izan den neskei toka egiten dienen bat.

Ahizparekin ez du hika egiten, agian ez dutelako ume-umetatik jaso. Mutilei txikiagotan egiten zaie hika, neskentzat ez dela fina pentsatu izan delako. Hikaren konnotazio txarrak.</p>

5. Bikotearekin hika egitea, errespetua galtzea

- **Erref:** AZK-077/007
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:12:49. **Bukatu:** 00:14:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Amamak bost-sume alabetan txikienari zuka egiten zion. Beste familia batzuetan ere gertatzen zen hori. Bera mutil-lagunarekin hasi zenean, hika egiten zuten, baina amamarentzat izugarrizko errespetu falta zen hori. Azkenean pixkanaka zuka-rako joera hartu zuten.</p>

6. Nokaren galera genero-ikuspegitik

- **Erref:** AZK-077/009
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:15:01. **Bukatu:** 00:18:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Noka galtzea hizkuntza ikuspegitik galera izango litzatekeela dio, baina genero-ikuspegitik galera handiagoa izango litzatekeela iruditzen zaio. Neskek lagunarteko komunikaziorako tresna bat galduko lukete batetik eta, bestetik, ezberdintasun bat sortuko litzateke neska eta mutilen artean. Hizkuntza garrantzitsua da genero-rolak puskatzeko.</p>

7. Hika tratamenduaren bilakaera

- **Erref:** AZK-077/013
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:22:56. **Bukatu:** 00:25:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Haur Hezkuntzako Gradu Bukaerako Lana egiteko, hitanoa hartu zuen gaitzat eta, lana egiterakoan, sorpresak hartu dituela dio. Garai batean zuka errespetuzko trataera zen eta hika herri xehearen arteko hizketa-modua. Gerora, gertukoaren arteko trataera bihurtu zen hika. Gaur egun mutilen kontua bihurtzen ari dela uste du. Adibidez, tokaren adibideak ikus daitezke telebistan, baina nokarenik ez.</p>

8. Gradu Bukaerako Lanerako hitanoaren ikerketak eta erabilera-datuak aztertzen

- **Erref:** AZK-077/014
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:25:56. **Bukatu:** 00:29:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>Haur Hezkuntzako Gradu Bukaerako Lana egiteko, hitanoa hartu zuen gaitzat. Azkoitiko Floreaga ikastetxerako egin zuen proposamena, bertako irakasleak azkoitiarrak, emakumezkoak eta noka erabiltzen dutenak direlako. Lanaren lehenengo urratsa hitanoaren bilakaera eta herri desberdinetan hitanoaren inguruan egin izan diren lanak aztertzea izan zen. Azpeitiko erabilera-datuak ere aztertu zituen. Azkoitian eta Azpeitian hitanoa ez dela galtzen ari dio, noka ari da galtzen.</p>

9. Hitanoa Haur Hezkuntzatik lantzen hasteko proposamena

- **Erref:** AZK-077/015
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:29:08. **Bukatu:** 00:31:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Umetatik ez bada jasotzen, zaila da adin batekin zuka-tik hika-rako jauzia egitea. Hori dela eta, Haur Hezkuntzako Gradu Bukaerako Lanean hitanoa haur hezkuntzatik lantzen hasteko proposamena egin zuen, familietan egin ez den transmisio hori eskolan egiteko eta umeei hitano eredu onak emateko (kaleko ereduak tokarena eta hiper-hitanoz josia delako).</p>

10. Hitanoa ipuinetan

- **Erref:** AZK-077/016
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:31:38. **Bukatu:** 00:34:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Haur Hezkuntzan hitanoa txertatzen hasteko, hainbat ipuin aztertu zituen, baina oso ipuin gutxitan aurki daiteke hitanoa. Mitologiarekin lotuta agertzen da batzuetan, baina egunerokotasunean hika normaltasunez erabiltzen duten

ipuinik ez dago ia. Tradiziozko ipuinetan toka azaltzen da, beharbada pertsonaiak ere gizonezkoak direlako.</p>

11. Hitanoa kantetan

- **Erref:** AZK-077/017
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:34:19. **Bukatu:** 00:35:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Kantei dagokienez, badira hitanoa erabiltzen dutenak, baita noka darabiltenak ere. Oskorriren bilduma aipatzen du. Kanta batzuen bertsio berrienetan hika-tik zuka-rako aldaketa egin da. Kantetan azaltzen diren hika arrasto txikiek umeak hitanora ohitzeko balio dute.</p>

Transkripzioa

- Eta kantuetan ikusten da hitanorik?
- Bai, kantu zaharretan da azaltzen da /azaltzea/. Bai, ze hor badaude zea batzuk, Oskorrik adibidez bilduma bat ein zun umien ipuin... oi, ipuinek... kantu zaharranak ta hola, tea hor bai azaltzen da. Bai, "Maria goikoa zer dun bekoa" ta hola ta noka eitten debena ´e bai. Eta nere amak adibidez guri txikittetik kantau izen dizkun kantuk-eta, ba, "lelengotxu hori..." ta hor nere amak-eta hitanue ibiltzen zeben. Baiño gero ikusi dittut askotan bertsixuk, eta zenbat eta berrixo, galdu in da, osea, ya "zu"rea bihurtu da; kantu berdiñe, ba, igual mantendu da, baiño ya "zu" esaten da, ez da esaten "hi".
- Bai ta, azkenian, detalle txiki batzuk dia, baiña, bueno, igual hor aldatuta eta hori, ez?
- Bai.
- Aukeria dao, ba, ume txikixak behintzat entzuteko.
- Entzuteko. Entzuteko ta ibili... Entzuteko ta ez gauza raro zea baten bezela o ipuin mitologiko baten o beaxen errealidadetik kanpo daon gauza baten, baizik eta egunero, egunerokotasunin.

12. "Hi" zela forma ohikoena jakin behar luke jendeak

- **Erref:** AZK-077/019
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:35:33. **Bukatu:** 00:36:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Gradu bukaerako lana hitanoaren inguruan egin ostean, asko aldatu zaio ikuspegia. Jendeak hika nondik datorren jakin beharko lukeela iruditzen zaio: garai batean "hi" zela forma ohikoena eta "zu" plurala zela. Konnotazio txar

asko eman izan zaizkio hitanoari eta askok zatarra dela eta ez dutela nahi esaten dute.</p>

13. Hitanoaren genero-marka, errespetuz erabili beharrekoa

- **Erref:** AZK-077/020
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:36:47. **Bukatu:** 00:38:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hitanoaren genero-markak eztabaida sortu dezake, genero-markak kentzen ari garen garaiotan. Baina bakoitzak hautatu dezake berari toka ala noka zuzentzea nahi duen. Errespetuz erabiliz gero, ez dagoela arazorik iruditzen zaio.</p>

Transkripzioa

- Ta, gaiñera, dakan berezitasun hori, ez? Genero-marka hori eta...
- Bai. Bai, genero-marka hori eta, gaiñea, hor dao beste zea bat, beste gai bat, ez? osea, gen... beste eztabaida bat dao hor baitte, ez? genero markie. Oin genero-markak kentzen ai gean hontan, zea, gizarte hau hain binarixue ez dan hontan, eta... ez? Eta esaten dezu /esatezu/: ta oin, gaiñea, hika jarri? ez? lehen, "amigo, amiga" ta oin dauden diskuzixo hauek danakin erderaz, ez? eta guk euskeraz ez daukeula hainbeste, oin guk sartu? Ez? Baiño hitanue beti da biren harteko gauze bat. Hori, hori inportantie da. Ze zu talde bati ai baldin bazea, "zu" esan... ee.. ezin dezu "hi" esan, berez, hola, ez baldin baie danak emakumik eo. Ordun, biren arteko gauze bat da, ordun birek erabaki laikebe. Nik erabaki laiket zuk... zuri "hi" esan, "aizan", baño hi sentitzen baldin bahaiz "Ez, ez nik nahixo diñat nei mutille bezela eittie", "ordun nik mutil bezela ingo diat". "Ez, ez, eske, ba ez zaukenat garbi" o edozer gauza, ba, "zu" aukera hori hor dao.
- [...] "Ba nei toka ein" edo "noka ein".
- Hori da.
- Bakoitzak erabaki leike, ez?
- Bai, bai, bai, hori da, ba, "nei toka", "nei noka"... osea, biren arteko...
Ordun, errespeto bat baldin badao biren artin, ez, ordun nik uste det hor arazue ez daola. Ta, gaiñea, dudie baldin badao, zuka beti hor dao. Ez? Ordun, nik nere lagunekin nik badakit beakin ze harreman dauketan o ze. Ordun, nik harekin badakit, gertutasun hortan, badakit toka o noka ein ber dixotan o gure artin erabakiko deu, ez? Beti errespetutiken. Eta, bestela, ba, dudie badao, "zu".

14. Gaur egun tokari eta nokari ematen zaien irudia

- **Erref:** AZK-077/022
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:38:54. **Bukatu:** 00:42:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Neska gazte batzuek toka egiten omen dute elkarrekin Azkoitian. Ainarak dio agian irudi zehatz batekin lotzen direlako izan daitekeela: noka "atsoen" hizketa, jada erabiltzen ez dena, eta toka, berriz, modakoa, kalean erabiltzen dena. Bere amari ahizparekin hika egitea gauza normala iruditzen zitzaion, baina bere alabarentzat mutilen kontua da. Mutilen profil zehatz batekin lotzen da, gainera. Noka indartzea inportantea litzateke estereotipoekin apurtzeko.</p>

15. Tradizioz jasotako hitanoko erabilera-ohiturak

- **Erref:** AZK-077/031
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:49:30. **Bukatu:** 00:51:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Tradizioz hikaren erabileraren inguruko ohitura batzuk jaso izan dira. Norbaiti hika hitz egiteko, baldintza batzuk bete behar dira. Berari, esaterako, asko kostatzen zaio bere irakasle izandakoei edo dendako bezeroei hika egitea.</p>

16. Hika norekin?

- **Erref:** AZK-077/033
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:51:30. **Bukatu:** 00:54:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Ezezagun bati ez lioke hika egingo. Berarentzat garrantzitsua da herritarra edo hika egiten den herri batekoa izatea. Mutilei errazago egiten die hika eta horrekin kontzientzia hartu beharra duela dio. Zaharragoei ez lieke egingo. Hikak pertsona horrekin zenbaterainoko gertutasuna duzun adierazten du. Seme-alabei hika egiten hasi da kontzienteki eta orain hika egiteko aukerak gehiago aprobetxatzen dituela dio.</p>

17. Adin batetik behera noka gutxi

- **Erref:** AZK-077/036
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:56:09. **Bukatu:** 00:58:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika galtzeak pena handia emango lioke, euskararen berezitasun bat galduko litzatekeelako. Bere adinekoen artean oraindik noka asko erabiltzen da, baina gazteagoen artean asko galdu da. Noka dakiten mutil gazteak ere ez dira asko izango, baina noka egiten dion bezero bat aipatzen du.</p>

18. Ikastetxe eta irakasleen jarrera hitanoarekiko

- **Erref:** AZK-077/038
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:58:44. **Bukatu:** 01:01:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Berak Gradu Bukaerako Laneko proposamena Floreaga ikastetxerako egin zuen. Ikastetxean ordurako mahai gainean zuten hitanoaren gaia eta interesa ikusi zuen. Ikastetxeko euskararen erabilera. Ikastetxe publikoetan irakasleak asko aldatzen dira eta irakasle askok ez dakite hika. Alabaren irakasleak hika egiten die. Irakasleen artean interesa piztu beharko litzatekeela uste du.</p>

Transkripzioa

- Ikastetxien aldetik zer jarrera ikusi zendun zuk? Ikusi zendun...?
- Bai, nik uste det ikastetxik-eta badaukebela hori... hori mahai gain... Ni ikastetxea gai honekin jun aurretik gai hori mahai gain zauen ikastetxin. Osea, ai zien horrekin, udaletxikin´e gaiñea hasitte zauen proiektu hau pixket bultzatzeko ta hola ta... ikastetxik beaxen aldetiken´e bai. Oin, eske kriston zailtasunek dauzkebe baitte. Ez da erreza, ze... Bueno, gaiñea, Florian (Floreagan), adibidez, haur hezkuntzan erderaz... ni harritute gerau nitzen umik eta. Bai, ze daude kanpo... kanpotik etorrittekuk-eta asko daude euskeraz etxin ez dakibenak, famili erdaldunetatik... Florian bertan famili erdaldunek... bueno, iguel Axkoittixen jaixotakuk dienak gurasuk, e, baiño attitte eta amama Extremaduratiken edo Zamoratik etorri zienak eta hola, ta ohiturez erderaz ein debenak-eta asko daude. Ta, ordun, beaxek daukebe lan pillo bat euskeraz eittikin, osea ya hikakin hasteko. Oin, ez dao aukerau berrik ezta, ez? Osea, zuk hasi leikezu euskeraz ya hitanua sartuiez, hasi leikezu baitte. Ordun, ein leike. Baiñe interesa badao. Nik uste det badaukebela, bai. Ikastetxetan pasatzen dana /pasatzeana/ da gero baitte, batizbat publikotan-ta, ba, ordezkapenak-eta´re asko eitten diela /eitteiel/ ta, ordun, jende asko ez da herrikue´re ta, ordun, fffffuuuuu... ez daki! Seguruna irakasle askok ez dakibela.
- Hori esaten zendun, ez? Publikuan izango balitz... kasu hontan Florian irakasle danak zian noka erabiltzen zebenak.
- Bai.
- Publikuan izango balitz, ba, lehelengo hor...
- Bai, lehelengo irakaslik in berko lukebe. Oin, adibidez, nere alaba dabil zean, ikastetxe publikun dabil, eta bean andereñuk noka eitten dixobe.

Osea, hitanue eitten dixobe umiei eta neskai noka eitten dixobe. Bai.
- Beittu ze ondo.
- Bai. Azpeittiarra da andereñue ta ya badauke bere adin bat... ba, bueno, harek bizi osun eingo zun eta umiei eitten dixobe. Ordun, batzuk badaude, irakasle batzuk, ba, ya badaukebenak kezka hori o hola ta... bai, badaude batzuk. Oin, gero nik uste det /ustet/ daudenak´e gehixo aprobetxau... “aprobetxau” leizkela. Bai. Igual konsziente izen ezkeo beaxek o iguel ikastaro batzuk ein beaxek´e, ba, ez bakarrik noka ikasteko, baizik eta zeatiken ein noka o ze ai dan pasatzen o horri buruzko hausnarketa bat eingo balitzeke... ba, bai.

19. Hitanoa bultzatzeko zer egin behar litzatekeen

- **Erref:** AZK-077/041
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:03:08. **Bukatu:** 01:05:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>Hitanoa indartzeko zer egin beharko litzatekeen. Batetik, gurasoak kontzientziatu beharko liratekeela uste du. Eta etxetik jasotzen ez dutenentzat, eskolan lantzea garrantzitsua litzateke, txiki-txikitatik hasita. Literaturan eta telebistan erreferenteak izateko, Euskal Herri mailan eragin behar litzateke. Telebistan lehen gehiago erabiltzen zen hika.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com